

# 7 = 1 ala 1 = 7 ?

PIARRES XARRITTON




**IZAN** ohi zuen arrakasta. Iparralde honetan bederen, Aberri Eguna buruz, gure eskualde honetako zoko-moko bazter guzietan loratzen zitzaigun ustegabeko matematika formula berri honek:  $7 = 1$ . Doi bat harrotasunekin, Bazko oporetako turistei adierazten genien, gu garen 7 eskualde herriek Euskal Herri bakar 1 nahi genuela izan, muga guzietatik eta gainetik. Egumero Bordenabek etortzen zitzaizun egunkari eraldunek beste titulu bat emaiten zigun ordea goiz honetan irakurle euskaldunoi sudurra: *Aberri Eguna: 1 = 7*. Eta Bilbo, Gernika, Iruñea, Donostia, Arbona, Baiona, Donapaleu kondatuz ez zuen kazetariak lan handirik 7ko horretarat heltzeko. Min emaiten badigu ere datu horrek, onartu behar dugu abertzaleok, Xipri Egunkari honetan diogen bezala, *ez dela aurtzen Bazko izanen Aberri Egunik*, ez baita gure artean Batasun egiazkorrik; Zatiketa baizik. Gure historia luzeari so bat egiten diogunean, oharzten gara, egundainotik, zatiketaz zatiketa iragan dituztela gure euskaldun herriek, mendeak eta mendeak: oroiti gaitzen, Oinaz eta Ganboa, Agarramunt eta Biamunt, Sabelxuri eta Sabelgorri, Karlistak eta Liberalak, Xuriak eta Gorriak. Ez ote gara gaur ere Euskaldunok gure ohiko eta betiko alderdikeriatarat itzuliak? Bainan gure gauro egoraren arazoak gizon bakar batzuen husten ala historia itsu baten herrestoen bilatzea, ez zaigu aski. Aurtengo *«Aberri Egun» hutsesgin*, herriar ala atzerriar, orori erakutsi digunaz geroz, ez dela abertzalearen artean, Aberria-ren berpizkundeari buruzko ikuspegi bateratu izpirik, balia daki-gula bederen egun hori, alde guzietako euskaldunak, gure helburu eta helptide nagusien azterketa sakon bat egiteko! Aberria, bai! Zer bidez? Zertako?

## EL DIARIO VASCO

### «Opa» goxoa

Egun Gipuzkoako Eusko Alderdi Jeltzaleko eta Eusko Alkartasuneko militanteen arteko hurbilketa politikoa ahabideratuko duen plataforma kulturala sortzeko posibilitatearekin, maiztako hauteskunde zita berotzen hasi da, eta bertan bi formazio horiek dituztean eta ez dituztenak jarriko dituzte. Karlos Garaikoetxearen alderdiak bere alde dauka, Gipuzkoako Foru Diputazioan eta Donostiako Udaltelean agintean lau urtetan egon zela. Murua et Albisturren hauteskunde kartelekin, alderdia sortu zenetik berneko tirabirak konpontzeko eduki arren. Azken hauteskundeetan, bere gainbehera geldituta, garrantzitsua da bi instituzio horiek bere gain izatea, Gipuzkoan protagonismoaren galera arriksutsu batera eramane ez dezan, proiektu politikoa geroa kalteu bait dezake.

EAJ prest dagoela dirudi EAekin kontentue ez dauden sektoreei «opa» gozosa bidaltzeko, eta zatiketaz piskanaka politikatik urrunduz zituen independenteak eta laidoak edozein ilajeok bereganatzeko. Lehengo «bultzagileak» dominatutako EAKo batzorde lokalak batzuk aurkeztutako hauteskundeareko paktu eskaintzak, nazionalismoaren eskema, lehenago edo beranduago. Gipuzkoan bakarrik geratzera joko duela iragarten du. Jeltzaleek bi helburu jarri dituzte: Gipuzkoako Plaza eta Alderdi Eder,



ZULET / EL CORREO ESPAÑOL / 91-III-29

eta horrela beren berriztatzea arrakastarekin koratu. Inoiz ez da izan hauteskunderik, basamortuko trabesiarra kondentatu zien haudura traumatiko hura eta bost urte geroagoak bezain irekirik. Eta atzo izan zela dirudi.

ALBERTO SURIO / 1991-III-30

## EL CORREO ESPAÑOL

### Gurutzearen sinboloa

Aste Santua udaberriko opor bilakatu da kontsumo gizartearentzat. Badatuz lehengo garaia. Izan ere, Bazko jaiak, bere sorreran udaberriaren hasieran nekazal eta baserri giroko herrietako jaiak zen. Kristauek jai hori

bereganatu eta Jainkoa hil eta ondoren bizi berri batera berpiztu zela interpretatu zuten. Berritua ere Bazko egunean, eguzkia, natura, neguaren ondoren jaikitzen den bizia bilatu nahi da. Gurutzearen konbentzioa ez den unetik, gurutzearen kristau sinboloa, errazago berreskuratuko du hasierako zentzu historikoa, bere izaera sozial eskandalugarria eta probokatzalea. Ez ote da ariko horrelako zerbitu gertatzen?

RAFAEL AGUIRRE / 1991-III-30

## egin Aberri Eguna

Penagarria da gure lider politikoek distantziak kontutan ez hartu izana.

EUSKARIA / 1991-III-30

## Aberri Eguna = Alderdi Eguna

JOAN MARI TORREALDAI



**ZAZPI** deialdi egin bide dira aurtan Aberri Eguna ospatzeko, zazpi alderdi abertzaleko eginak. «Probinzika» bezala banatu da berriz Euskal Herria: lau Hegoaldean eta hiru Iparraldean. Eta, dibateaz, «zazpi» zenbaki sinboliko eta magiko hori berreskuratu dugu. «Zazpiak bat» ere ba omen zen lehen. Orain ez, orain zazpiak zazpi dira, gutxienez zazpi. Euskal «matematikak» desberdinak omen ziren lehen. Alegia,  $4 + 3 = 1$ . Gaur ez, gaur,  $4 + 3 = 7$  da mundu osoan bezala eta mundu guztiarentzat bezala. Normalizatu egin gara gu ere, ondo kostata baina. Baldintza hauetan merezi al du, Aberri Eguna bilakatu? Aberri Eguna da, hain zuzen, «Zazpiak bat» aldarrikatzeko eguna. Batasuna oihukatu bai, baina praktikatu ez: horra egia, aurtan sekula baino haundiagoa, Iparraldekoak ere banatu egin bait zaizkigu. Bistan da: Aberri Eguna, Alderdi Eguna bilakatu zaigu Galdera bat baino gehiago sortarazten dit neri honek. Erantzunik badakizkit, eta ez didate balio, Euskal Herria (edozein erreallitate) zergatik ikusi behar da beti eta eskuliboki alderdien ikuspegiatik? Noiz hasi behar dute alderdiek ekinzia eta dinamika bateratuak bultzatzen? Zergatik da ezinaz gainera pentsaezina Aberri Egun batez bederen abertzale guztiak bat egitea? Azkenaldi honetan predikatzen zaigun integrazio zergatik ez da abertzalean artekoa, eta aldekoa? Integrazioaren izenaz zergatik galdetzen da euskal abertzalearen nazionalismo espainolararen uretan? Noiz arte da utopia «Zazpiak bat» errebinkatuz eta praktikatu, biak batera eginaz, Aberri Eguna ospatzea?

## ZUZENDARIARI

**Trikitilariak Euskadi Irratik lehiaketarekin kexu**

Euskadi Irratik antolatutako trikiti pieza berrien lehiaketan parte hartu dugunok zertxobait esan nahi genuke sonidoari buruz.

Ez da lehen aldian sonoziazio kaxkarreko jaialdia eman ten ditugula, eta txapelketa batek behar duen serioetasuna kontutan harturik, ezin genazake onartu gertatutakoa.

Jendeak ezin izan zuen entzun eta apreziatu jotzen ari ginen, ezta hitzak ulertu ere.

Plazatxo baterako sonido ekipoa ez da nahikoa frontoirako, eta hain gutxi frontoirako dena polikiroidegi bat sonoziazioz. Eman diezaiogun sonido kontuari, sariet edo lekua handitasunari ematen zaion garrantzia.

Beraz, ondoren datozen txapelketa nagusiko bi finalerdi eta finalean halakorik gerta ez dadin, aurrez abisatu nahi genuke behar diren neurriak hartzeko; bestela trikitilariok azken momentuan gure erabakia hartuko genuke.

ZORTZI BIKOTEAK

**Neska gogor xamar defendatu ote da?**

Martxoaren 17ko goizaldean, donostiar neska bat gogor eta zakarki kolpatua izan zen Orio eta Mendizorroz gainaren artean, eraso-tzaileak neska sexualki abusatu nahi zuenean honek aurre egin ziolako. Gure galdera hauxe da. Kasu honetan biktima gutxi samar defendatu zela esatera ausartuko den epaile argirean bat egongo al da? edo, erasotzailearen aurrean eroi gisa defendatu zela ulertuko du, agian?

Gure zalantzak dauzkagu eta, azkenaldian kaleratzen ari diren sententzi zuzengabeak onartu ezinezkoak gozarazi nahi genituzke.

«...Auzitegi Gorenak bortxatzaile bat absolbatu du, biktimak honi aurre egitekoan ez zela oso gogor egon adieraziz, eta buruorrazt batez egin zion mehatxua ez dala beldurra sartzeko modukoa kontsideratuz».

Legez inongo babesik gabe uzten gaituen gisa honetako epaiak erabat eragozten ditugu eta emakumeok jasaten ditugun milaka eraso zi-

gorgabe edo sinboliko zigortuak gelditu ez daitezten, justiziari aurre egin behar zaitola derizkiogu.

Lerro hauen bidez, donostiar neskatxak jasan duen eraso gogorik salatu nahi dugu eta emakumeoi, sufri dezakeuzen edozein erasoren salaketa publiko egitea animatzen zaituztegu.

EGIZAN

### Euskaltzaindia salatu nahiz

Duela gutxi jaso dut Euskaltzaindiaren aldizkariaren azken alea. Sobran sarturik iritsi zait eta sobran «Difusion Cultural» jartzen du, erdara hutsean. Ez dakit Eusnoren kontua izango den oharpen hori jartzea. Postarena bada, konprenditzen dut, nahiz eta euskara ere ofiziala izan, ez bait daude berena ez duten hizkuntzaren alde. Euskaltzaindiarena bada, Euskaltzaindiak berak horrelako mesprezia euskarari egitea, niretzat benetan adierazkorra litzateke. Espero dut erantzuna.

JU (PASAIA)

## PERTSONAIA



### Giulio Andreotti

Dimisioa eskatu duzu Giulio Andreotti berriz italiarrek hartuko zuten hau naturaltasun haundiz etxeko andreak spaghettiak egiten bezala zabilz baietz «kuzina» gobernu berri bat zazpigarregi aldiz.

SANTI ZABALA «LEZO»

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:

MARTIN UGALDE

Zuzendaria:

PELLO ZUBIRIA

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria:

JOAN MARI TORREALDAI

Zuzendariordeak:

NEREA AZURMENDI

Kontseilari Ordezkarria:

JOXE MIEL ZUMALABE

LUZIEZ ETXEZAHARRETA

INAKI URIA

Gerentea:

INMA GOMILA

Publizitatea:

KORNELIO ROTETA

Batzorde Parekidea: 72564 E  
Legu Gordailua: SS 800/90

# Egunkaria

### HELBIDEAK

Egoitza soziala, Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1 / 20.010 Donostia / ☎ 45 59 57 / Faxa: 46 90 22

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabiloak / 20.160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Publizitatea: Loloila, 14-1.3 / 20005 Donostia / ☎ 42 69 96 / Faxa: 42 93 18

Araba: San Antonio, 20-1. Lezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎ 17 80 78 / 79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskuma. / 48002 Bilbo / ☎ 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapurdi / Nafarroa Behera / Zuberoa: 2, Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11